BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

1165

EBAZPENA, 2013ko otsailaren 5ekoa, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariarena; honen bidez jakinarazten da jendaurrean jarri dela 2012n NBBEF funtsen kontura esleitu eta Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzailearen bitartez ordaindutako laguntzen informazioa.

Administrazioaren diru-laguntzen jardueran nagusi izan behar duen publikotasun-printzipioa betetzeari begira, eta kontuan hartuta 2012. urtean Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzaileak onuradun askori ordaindu dizkiela –eta banan-banan jakinarazi– NBBEFren kontura finantzaturiko diru-laguntzak, ebazpen honen bidez jakinarazten da jendaurrean jarri direla diru-laguntza horien inguruko datuak.

Kontuan izan behar da, halaber, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2010eko azaroaren 9ko epaiak baliogabetzat jo zituela erkidegoko araudiko aginduak, NBBEF funtsen onuradun diren pertsona fisikoen gaineko informazioa argitaratzeari dagokionez. Hori dela eta, argitaratuko diren datuak pertsona juridikoenak bakarrik izango dira.

Horiek horrela,

EBAZTEN DUT:

Artikulu Bakarra.– 2012an NBBEF funtsen kontura esleitu eta Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzailearen bitartez ordaindutako laguntzen onuradunen datuak interneteko www.euskadi.net helbidean jendaurrean jarri direla jakinaraztea (Eusko Jaurlaritzaren sailak / Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila / Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna / Nekazaritza eta Abeltzaintza / Erakunde Ordaintzailearen ordainketak).

Vitoria-Gasteiz, 2013ko otsailaren 5a.

Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendaria,
EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO.